

ADITUA EGUN BATEZ

1. IDEIA

Gure negozio-ideia zerbitzu bat da, “Aditua egun batez” izena duela.

Gaur egun, etorkizunerako zalantzak dituen jende asko dago, eta geroaldiko ikasketak erabakitzea oso erabaki garrantzitsua da. Zerbitzu honen bitartez laguntza eskaintzen dugu, eta geroaldian zalantzak dituen jendeari lan batean aritzeko edo ikasketak frogatzeko aukera ematean datza.

Modu honetan, laguntzen diegu haien etorkizuna argitzeko eta gustuko duten lana aukeratzeko.

Bezeroak, ikasleak edo helduak izan daiteke, eta eskuragarri izango dituzten baliabideak ugariak izango dira.

Negozio-ideia honen bitartez esperientzia laborala eskaintzen dugu eta iraupena egun batekoa, aste batekoa edo hilabete batekoa izan daiteke, bezeroak ideiak argitzeko behar duten denboraren arabera, hainbat eskermentu aukeratu ditugu:

- DBH
- Batxilergoa (zientziak, zientzia sozialak, humanistikoa)
- FP (goi edo erdi mailakoa)
- Unibertsitatea

Baina erabakiak hartu baino lehen, bezeroa ezagutu behar dugu, laguntza eta aholkuak eman ahal izateko eta horretarako test bat egin beharko diegu gure web orriaren bitartez.

Test horretan hurrengo informazioa agertuko da:

- Gustuko dituzten jarduerak
- Informazio pertsonala
- Ikasketak
- Esperientzia
- Datu gehigarriak

